

**Beste saltoki bat du orain belaunaldi berrikoa**

## **EROSKI-K 'ZUREKIN' EREDURA ALDATU DU ARTIKAKO SUPERMERTAKU BAT**

- **Denda osorik berritzeko, 186.163 euro inbertitu dira**
- **26 langile izango ditu saltoki eraldatu berriak**
- **Supermerkatua berrituta, produktu sailak ugarituko dira, eta kontsumitzaileak aukera askatasun handiagoa izango du; gainera, eskura izango ditu bertako produktuak eta sasoian sasoiko freskoak**

**Artika (Nafarroa), 2018ko urriaren 11.-** [EROSKI](#)k Artikako Maiatzeko Plazako Amak kalean dagoen supermerkatuan ipini du Zurekin eredu, hau da, belaunaldi berriko saltokien eredu komertziala. Oso eredu lehiakorra da, eta kontsumitzaileek estimaten dute. Hori dela eta, sare komertzial osoa eredu horretara birmoldatzen ari da koopetariba. Hauek dira haren oinarritzko ezaugarriak: bezeroarenganako arreta pertsonalizatuagoa, tokian tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen aldeko apustu indartsua, elikagai osasungarrien promozioa eta eguneroko erosketan dirua aurrezteko modu berriak. Eraldaketa horrekin, EROSKIk proposamen komertzial berri bat egiten die auzokoei, zeina orain arte Caprabo markarekin jarduten baitzen.

EROSKIk 186.163 euro inguruko inbertsioa egin du eraldaketan. Guztira, 26 langile izango ditu saltokiak. Talde horrek prestakuntza jakin bat jaso du, bezeroari arreta pertsonalagoa emateko eta dendan lan egiten duten taldeek beren autogestioan sakontzeko.

Supermerkatuak 1.700 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du, eta produktuen gama zabalduko du, kontsumitzaileei aukera askatasun handiagoa emateko, fabrikatzaile liderren, marka propioen eta bertako ekoizleen 5.000 produktuko sailarekin. Bezeroek arreta pertsonalizatua izango dute harategian, urdaitegian eta arrandegian. Horretaz gain, janari freskoen eskaintza zabala izango dute; batez ere, sasoian sasoiko bertako frutak eta barazkiak eta Nafarroako produktu tipikoak. Okintzako eta opilgintzako produktuak ere izango dituzte, labe propioan erre berriak.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Kluba da erakusgarriarik behinena. Markaren bezero-bazkideen harremanerako programa da, eta %15eko deskontuak eskaintzen ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, baita sustapenak, berriazko eskaintzak eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 178.500 nafar baino gehiago kooperatibaren Bezero Bazkideak dira, eta EROSKI Klubaren abantailak eskura dituzte dagoeneko.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

## **Elikadura osasungarriaren promozioa**

EROSKI, [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen konpromiso berrituen harira](#), lan handia egiten ari da elikadura osasungarria sustatzeko: Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoa izeneko atal berria du, eta zabaldu egin du elikagaiekiko intolerantziak dituztenen eta beren elikadurarekin sentsibilizatuta daudenen produktu sorta; besteren artean, glutenik gabeko elikagaiak, azukre gutxikoak, gatz gutxikoak...

Gainera, saltoki berriak azken berrikuntza teknologikoak dakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko.

## **Tokian tokiko produktuak, dendako protagonistak**

Belaunaldi berriko EROSKI dendak freskoetan espezializatuago daude; salgai kopurua igo dute, eta janari horietako asko tokikoak eta sasoikoak dira. *"Tokian tokiko produktuek garrantzi handia hartu dute Zurekin eremuan. Nekazaritzako elikagaien sektoreari laguntzen diogu iraunkorragoa eta ugaritasun handikoa izan dadin; izan ere, gure dendak eskualdean ekoizten diren janariak merkaturatzeko plataforma irekiak dira"*, esan du EROSKI iparraldean dituen Supermerkatuetako zuzendariak, Edorta Juaristik.

Kooperatibak Nafarroako 3.200 hornitzaile txiki baino gehiagoren 470 produktu inguru saltzen ditu, eta 223 milioi euroren erosketak egiten dizkie haiei urtean. %14 igo da EROSKI Nafarroako Foru Komunitatean saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. Hazkuntzarik handiena harategian izan da, %47 igo baita; freskoetan, berriz, %16, eta urdaitegian, %14.

## **EROSKI Nafarroan**

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Nafarroako elikagaien banaketan. 109 saltokiko sare komertziala du Foru Erkidegoan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak; horiez gain, on line supermerkatua; alde horretatik, bakarra da erosketak Nafarroako edozein etxetara eramanez ditzakeena.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)